


ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

## 2014-2020 PROGRAMAZIO ALDIRAKO FINANTZA- TRESNA BERRIAK EB-AN

Etxebizitzaren eremuko aukerak




**2013ko Maiatza**



## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>4</b>
<b>2. HIRI GARAPENAREN KONTZEPTU BERRIA 2014-2020 ALDIKO KOHESIO POLITIKAN</b> .....	<b>5</b>
2.1. Aurrekariak: etxebizitza-politika eta EBren politika .....	5
2.1.1. EBn etxebizitzari lotuta dauden kohesio-politiken izaera soziala .....	5
2.1.2. Eraginkortasun energetikorako politiken garrantzi gero eta handiagoa EGEFen finantzaketan.....	6
2.1.3. Hiri-garapenerako proiektuen finantzaketa hiri europarretan.....	7
2.2. Etxebizitza eta hiri-garapena 2014-2020 aldiko kohesio-politikan .....	8
2.2.1. Lehentasunezko helburuak eta ekintzak 2014-2020 aldirako kohesio-politikan .....	8
2.2.2. Hiri-garapenerako estrategiak indartzea 2014-2010 aldian .....	12
<b>3. FINANTZATRESNA BERRITZAILEAK 2014-2020 PROGRAMAZIO ALDI BERRIAN</b> .....	<b>14</b>
3.1. 2014-2020 aldian kohesio-politika kudeatzeko esparru erraztua eta integratua .....	15
3.1.1. Finantza-tresnen aplikazioagehiago erraztea .....	15
3.1.2. Integratutako Lurralde Inbertsioak (ITI): hiri-garapenean finantza-tresnak ezartzeko tresna egokia .....	16
3.2. 2014-2020 programazio-aldi berrirako finantza-tresnak.....	19
<b>4. FINANTZA-TRESNA BERRITZAILEEN APLIKAZIOAREN ESPERIENTZIAK 2007-2013 ALDIAN: JESSICA EKIMENA</b> .....	<b>23</b>
4.1. JESSICA ekimena .....	24
4.2. Programazio-aldi berrirako esperientzia garrantzitsuak identifikatzea .....	28
4.2.1. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Inbertsio Funtza (FIDAE). Espaini.....	30
4.2.2. JESSICA ekimena Andaluzian .....	33
4.2.3. JESSICA ekimena Campaniako eskualdean. Italia .....	35
4.2.4. JESSICA ekimena Estonian .....	38
<b>ERANSKINA. 2007-2013 FINANTZA ESPARRUKO BESTE FINANTZA-TRESNA BERRITZAILE BATZUK</b>	




## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orria

2.1. grafikoa	EBren 2014-2020 aldiko kohesio-politikaren lehentasunezko helburuak .....	9
2.2. grafikoa	Esparru Estrategiko Bateratuaren baitan gaikako helburuak , lehentasunak eta funtsezko jarduerak nola artikulatzen diren.....	10
4.1. grafikoa	JESSICA ekimenaren finantzaketa-eskema orokorra .....	27
4.2. grafikoa	FIDAEn finantzaketa-eskema .....	32
4.3. grafikoa	JESSICA ekimenaren finantzaketa-eskema Campaniako eskualdean .....	38
4.4. grafikoa	JESSICA ekimenaren finantzaketa-eskema Estonian .....	40

## TAULEN AURKIBIDEA

4.1. taula	EIBrekin koordinatuta estatu kideek kudeatutako JESSICA ekimenen aurrekontuen esleipena .....	29
4.2. taula	Funtsaren aurrekontu-esleipena autonomia-erkidego bakoitzeko Programa Operatiboaren arabera.....	30



## 1. SARRERA

Txosten honen helburua hau da: Egitura-Funtsen 2014-2020 programazio-aldi berrian aplikatuko diren finantzaketa-tresna berrietara hurbiltzea eta etxebizitza-politikak eta hiri-garapena finantzatzeko eskaintzen diren aukeren berri ematea.


Horretarako, 2. kapituluan, esparru orokor gisa, 2014-2020 aldirako kohesio-politikaren ikuspegi berria aurkeztu dugu, etxebizitzaren eta hiri-garapenaren eremuan aurreikusitako helburuak eta funtsezko jarduerak nabarmenduz.

3. kapituluan, Europako Batzordeak 2014-2020 aldirako proposatzen dituen finantza-tresna berriak azaldu ditugu. Horiek, Egitura-Funtsei lotutako diru-laguntzetatik datozen baliabideak osatzeko aukera eskaintzen ahalegintzen dira, lankidetzak publiko-privatua sustatzeko inbertsio-estrategiak optimizatzen eta indartzen saiatuz. Esan beharra dago, txosten hau idazten ari girela, tresna berrien diseinua garapen-fasean zegoela.

Horregatik, 4. kapituluan JESSICA ekimena deskribatu dugu. Ekimen hori 2007-2013 programazio-aldian hasi zenez, orain nazioko eta eskualdeko Programa Operatiboetara hedatu nahi direnen antzeko finantza-tresna berritzaileak esperimentatu ahal izan ditugu.

Hortaz, 4. kapituluan, estatu kideko hainbat esperientzia deskribatu ditugu, finantza-tresna berritzaileak Egitura-Funtsetatik datorren finantzaketarekin konbinatuz izaten duten garapena erakusteko.

Amaitzeko, azkeneko eranskinean, 2007-2013 aldian esperimentatu diren beste finantzaketa-tresna berritzaile batzuk azaldu ditugu. Horiek, baina, ez dira JESSICA BEZALA Egitura-Funtsetatik datozen diru-laguntzak dituzten inbertsio-estrategia integratuetan sartu.



## 2. HIRI GARAPENAREN KONTZEPTU BERRIA 2014-2020 ALDIKO KOHESIO-POLITIKAN

### 2.1. Aurrekariak: etxebizitza-politika eta EBren politika

EBk beste sektore-politika batzuetan zuzeneko eskuduntzak baditu ere, etxebizitzaren alorreko eskuduntzek EBko estatu kideen esku egoten jarraitzen dute.

Hala eta guztiz ere, bi hamarkada baino gehiagotik, EBk eragin handia du etxebizitza-politiken alorreko araugintzan eta programetan. Ondorioz, harmonizazio fiskaleko eta eskuduntzen legegintzako prozesuak urteen poderioz erkidegoan garatu den etxebizitza sozialaren definizioaren hazia izan dira.

Halaber, azken programazio-aldietan, hiri-garapenarekin lotutako programak zuzenean kofinantzatzen lagundu du kohesio-politikak, hiru eremu hauetan bereziki:

- EBko hiri-garapenaren eta etxebizitzaren alorreko politiken izaera sozial gero eta handiagoan.
- Eraikuntza-prozesuetan eraginkortasun energetikoa eta teknika berritzaileak bultzatzen dituzten proiektu eta programei emandako laguntzan.
- EBko hiri eta auzoetan birsorkuntza eta hiri-garapen integralerako programen finantzaketan.


#### 2.1.1. EBn etxebizitzari lotuta dauden kohesio-politiken izaera soziala

Azken hamabost urteetan asko aurreratu da EBrakon etxebizitza sozialaren kontzeptu bateratuan .

EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 34. artikuluan, baliabide nahikoak ez dituzten pertsonen bizitza duina bermatzeko laguntzak (soziala eta etxebizitzaren alorrekoa) jasotzeko eskubidea finkatzen da, gizarte-bazterketri eta pobrezari aurre egiteko asmoz. Gogora dezagun gutun horren lehendabiziko bertsioa 1999koa dela eta 2009an berretsi zela maila juridikoan,

2005ean, estatuko legeriak horrela begiesten duen kasuetan etxebizitza soziala interes orokorreko zerbitzu ekonomikotzat onartu zuen Eskumenaren Zuzendaritza Nagusiak.

Lisboako 2009ko Itunak interes orokorreko zerbitzu ekonomikoak zuzenduko dituzten printzipioak ezartzen ditu, besteak beste, etxebizitzarekin zerikusia daukatenak. Beraz, etxebizitzaren alorreko interes orokorreko zerbitzu horiek baztertutako edo kaltetutako pertsona edo taldeen eskura jartzen ditu, kaudimen faltagatik horiek ez baitute merkatuko baldintzetan etxebizitza bat eskuratzeko gaitasunik.



Oraintsuago, 2010. urtea Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borrokaren Europako Urte izendatu zen. Urte hartako emaitzen eta ebaluazio orokorraren balantzean, Europako Batzordeak etxebizitzaren garrantzia nabarmendu zuen, eta, estatu kideek garatutako ekintzen artean, merkatu librean errentako etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen higiezin-zerbitzuak hornitzeko proiektuak dira garrantzitsuenak.

Halaber, Europako Gizarte Funtsa bereziki ahulak diren taldeen gizarteratzea lortzeko politikak eta proiektuak ari da finantzatzen. Kohesio-politiketan, etxebizitzarekin eta bizitegi-bazterketarekin zerikusia daukaten alderdiak gero eta gehiago hartzen dira kontuan gizarteratzearen baitan.

### **2.1.2. Eraginkortasun energetikorako politiken garrantzi gero eta handiagoa EGEFen finantzaketan**


EGEFen 2007-2013 Programa Operatiboek beren funtsetatik hartutako baliabideak erabili ahal izan dituzte, etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa areagotzeko nazioko, eskualdeko eta tokiko proiektuak sustatzearen.

Horren harira, proiektu eta ekintza hauek ziren diruz laguntzeko modukoak: kristal bikoitzak instalatzea, hormak isolatzea, eguzki-panelak instalatzea eta berokuntza-sistema zaharrak beste eraginkorrago batzuek ordezkatzea.

Aurrekontuen ikuspegitik, azken urteetan indartu egin da EGEFek etxebizitzari lotutako programa eta proiektuen finantzaketan duen eginkizuna, estatu kideen etxebizitza-parkeen eraginkortasun energetikoa hobetzeko proiektuetan bereziki. Horrela, bada, 2009az geroztik, estatu kideek EGEF funtsen % 4 bidera dezakete etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera xedetzat dituzten proiektuetara, kohesio sozial handiagoa lortzera bideratutako programen baitan.

EBko etxebizitza-parke osoaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko Egitura-Funtsek egin duten apustu horren ondoan, erkidegoko eraginkortasun energetikoaren balditzak harmonizatzekeo prozesu bat abiarazi da, eta, 2014-2020 programazio-aldi berrian, eragin handia izan dezake.

Horrenbestez, 2010/31/EB Zuzentarauaren bitartez, Europar Batasun osorako eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak homologatzeko baldintzak finkatu dira. Arau horren arabera, 2020an eraikin guztiek energia-kontsumo ia hutsa izan behar dute.



### 2.1.3. Hiri-garapenerako proiektuen finantzaketa hiri europarretan

Europar Batasuneko etxebizitza-politikak finantzatzeko mekanismoak aztertzeke orduan, nabarmentzekoa da tokiko hiri-garapenerako proiektuen finantzaketari kohesio-politikak ematen dion garrantzia.

Egitura-Funtsek Europar Batasuneko hiriak garatzeko helburua duten programak eta proiektuak finantzatzearen alde egindako apustua Lisboako estrategian ardatzen da. Horren arabera, hiriak etxebizitza-politikarekin zerikusia duten gaien hazkunde-poloak dira; hona hemen gaiok:

- Hirien, auzoen eta talde sozialen (gazteen, emakumeen, emigranteen, gutxiengo etnikoen) arteko desberdintasunen aurkako borroka.
- Etxebizitza-gaietan laguntza sozialak ezartzea, babes sozialeko sistemetan premia duten taldeentzat, etxebizitza sozialaren alorreko politikak gutxiago garatuta dauden estatuetan bereziki.
- Eraikuntzaren sektorean enplegua eta prestakuntza sustatzea, beharrik handiena daukaten tokietan etxebizitza sozialaren parkea birgaitzeko politiken kasuan batez ere.


Erkidegoko URBAN ekimenak 2000-2006 aldian izandako arrakastaren ondoren, EGEFeko araudiaren 8. artikulua aldatu egin da, 2007-2013 programazio-aldian. Horrek arazo korapilatsuak zeuzkaten hiriko lekuetan estrategia parte-hartzaileetan integratutako hiri-garapenerako proiektuak zuzenean finantzatzea ahalbidetu du.

Gaur egun, estrategia parte-hartzaileei, integratuei eta iraunkorrei garatzen laguntzeko dago EGEF pentsatuta, hiriguneetan eragina duten arazo ekonomiko, inguruneke eta sozial handiei aurre egiteko.

Ondorioz, estatu kideek eskualde eta hiri guztietako Programa Operatiboetan aplikatu ahal izan dute URBAN ikuspegia, auzo edo hiri bateko ardatz eta proiektuak abiarazteko logika integrala sustatzen duena. Horretarako, sektoreko ardatz eta politikak nahierara konbinatu ditu, inguru geografiko berean.

2007-2013 programazio-aldian hiri-garapeneraren alde egindako apustu handiagoari esker, EGEF funts gehiago erabili dira, hirietan programa integralak abiarazteko. Hain zuzen ere, epealdi horretako EGEFen aurrekontuaren % 3 inguru (10.000 bat milioi euro) programa mota horietara zuzendu dira.

2007-2013 aldian EGEF Programa Operatiboan baitan hiri-garapena txertatzeko prozesu horretaz gain, URBACT izeneko programa berria abiarazi da. Guztira 53,3 milioi euro bildu ditu eta EGEFek eta estatu kideek finantzatu dute. Lehen bi deialdietan, 29 herrialdeetako 300 hiri inguruk hartu dute parte.



## 2.2. Etxebizitza eta hiri-garapena 2014-2020 aldiko kohesio-politikan

Epealdi horretan EB osoan “hazkunde zentzuzkoa eta iraunkorra” lortzeari dagokionez 2020 Estrategiak aipatzen dituen bost helburu nagusien artean, bi hauek daude hirigintza- eta etxebizitza-politikekin erlazionatuta:

1. 20/20/20 helburura heltzea: Europar Batasuneko lehen mailako energia kontsumoa % 20 murriztea, berotegi-efektuko gasen isurpena % 20 txikitzea eta energia berriztagarrien ekarpena kontsumoaren % 20ra jasotzea.
2. Pobrezia-arriskuan dauden pertsonen kopurua 20 milioi txikitzea.


2020rako erdietsi beharreko oinarrizko bi helburu horiek bat egiten dute etxebizitzaren eremuan Egitura-Funtsek finantzatzen dituzten programa eta proiektuen beste bi eremurekin : eraginkortasun energetikoarekin eta bizitegi-bazterketaren kontrako borrokarekin.

### 2.2.1. Lehentasunezko helburuak eta ekintzak 2014-2020 aldirako kohesio-politikan


2012ko urriaren 6an, 2014-2020 aldiran EBren kohesio-politika eta finantza-tresnak zuzenduko dituzten arauak ezarri zituen Europako Batzordeak.

Hartarako, Batzordeak Esparru Estrategiko Bateratua finkatu zuen. Bertan, EBren 2014-2020 aldirako lehentasun nagusiak islatzen dira eta EBren tresna finantzarioen bidez egindako gastua eta inbertsioa hobeto koordinatzeko saiakera egin da.






## 2.1. grafikoa EBren 2014-2020 aldiko kohesio-politikaren lehentasunezko helburuak




*Iturria: Europako Batzordea*

Gaikako helburu bakoitzerako, funtsezko jarduerak finkatu dira, Batasuneko inbertsio-lehentasunak aintzat hartuz. 2014-2020 aldian programak abian jartzen direnean espero da horiek hazkundera, enpleguan eta jasangarritasunean eraginik handiena izatea.



2.2. grafikoa Esparru Estrategiko Bateratuaren baitan gaikako helburuak, lehentasunak eta funtsezko jarduerak nola artikulatzen diren



*Iturria: Europako Batzordea*

2014-2020 aldiko Esparru Estrategiko Bateratuaren proposamenerako helburu eta lehentasunezko ekintzen artean, bereziki etxebizitzarekin zerikusia duten lehentasunak eta Egitura-Funtsen bidez finantzatu nahi den hiri-garapena azaldu ditugu, hurrengo orrialdeko laburpen-taulan.



### 2014-2020 aldiko Esparru Estrategiko Bateratua.

#### Etxebizitzaren eta hiri-garapenaren alorreko funtsezko jarduerak


- a. 4. helburuaren baitan *–sektore guztietan karbono gutxiago erabiliko duen ekonomiara jauzi egitea–*, EGEFek eraginkortasun energetikoa eta azpiegitura publikoetan zein etxebizitzetan energia berriztagarrien erabilera sustatzea planteatzen da.
- b. 6. helburuaren barruan *–ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea–*, EGEFek hiri-ingurua hobetzera bideratuko ditu bere funtsak, industrialde zaharrak birgaitzea ahaztu gabe.
- c. 9. helburuaren baitan *–gizarteratzea sustatzea eta pobreziaren aurka borrokatzea–*, etxebizitzarekin eta hiri-garapenarekin zerikusia duten funtsezko jarduerak sartu dira.

#### c.1. EGIFerako aurreikusitako funtsezko jarduerak

- Tokiko estrategiak prestatzen, abian jartzen eta animatzen laguntzea.
- EGIFen aplikazio-esparruko tokiko estrategian pentsatutako eta aplikatutako ekintzak bultzatzea, gizarteratze-programak barne.

#### c.2. EGEFerako funtsezko jarduerak

- Pobrezia leku batean pila ez dadin, kaltetutako hiri- eta landa-taldeen (adibidez, ijitoen) birsorkuntza fisikoari laguntzea. Horretarako, plan integratuak erabiliko dira, etxebizitza soziala hezkuntzaren, osasunaren eta enpleguaren sektoreetako esku-hartzeekin uztartuz.
- Toki-garapenerako estrategiak sustatzea, tokiko eragileen bidez. Helburu horrekin, bazterketa sozialaren eta birsorkuntza fisiko eta ekonomikoaren eremuetan, tokiko ekintzarako taldeen gaitasunak sustatuko dira eta tokiko estrategiak prestatu, abiarazi eta bultzatu.



### 2.2.2. Hiri-garapenerako estrategiak indartzea 2014-2010 aldian

2014-2020 aldiko kohesio-politkarako Europako Batzordeak aurkeztutako proposamenen arabera, hiri- eta toki-garapenerako estrategiak funtsezko mekanismoak dira, hiri-garapen jasangarria hobetzeko. Gainera, hiriek kohesio-politikaren testuinguruan daukaten zeregina indartzeko beharra planteatzen dute.

Eremu horretan, kohesio-politikan tresna finantzarioak arautzeko Batzordeak egindako proposamenean, lehenetsuna ematen zaie Egitura-Funts guztiak bilduko dituen inbertsio-estrategia bakarraren bidez finantzatzeko tokiko garapen-planak abiarazteari eta 3. kapituluaren zehaztu diren beste finantza-tresna berritzaile batzuk abian jartzeari.

Ildo horretatik, ikuspegi integratu horrek hiri eta eskualdeen garapenean zer-nolako eragina izango duen estatu kide bakoitzaren Programa Operatiboetan finkatuko bada ere, kohesio-politikak sustatu egingo ditu halako estrategiak.

Hiri-garapenerako ikuspegi horren bidez, geografia-eremu bakoitzeko beharrei eraginkortasun handiagoz erantzutea espero dugu. Arreta berezia jarriko da pobrezia-, diskriminazio- edo bazterketa-arriskurik handiena duten taldeetara.

Estrategia horiek garrantzi berezia izan dezakete, hiri-garapenerako programei eta etxebizitza-politikari atxikitako tresna finantzario berrien eremuan.


Printzipioz, EGEF izango da 2014-2020 programazio-aldi berrian hiri-garapenerako estrategiak finantzatzeko dituen mekanismo nagusia.

Era berean, EBko estatu kideek Europako Gizarte Funtza (EGIF) erabili behar dute, EGEFekin sinergian, enpleguari, hezkuntzari, gizarteratzeari eta gaitasun instituzionalari buruzko neurrietan, integratutako estrategien esparruan diseinatu eta ezarri baitirak.

Aurrekontuari lehen hurbilketa eginez, EGEFen baliabide ekonomikoen % 5 inguru (8.000 milioi euro) hiri-garapen jasangarriko estrategia integratuak finantzatzera bideratzea aurreikusi du Batzordeak. Gainera, EGEFen bitartez hiri-garapenean soluzio berri eta berritzaileak sustatzeko partida osagarri bat aurreikusi da (EGEFen<sup>1</sup> guztizko esleipenaren % 0,2koa gehienez).

---

<sup>1</sup> Ekintza berritzaile horiek Europarako interesgarriak diren hiri-proiektu pilotuek, demostrazio-proiektuek eta antzeko ikerketek osatzea aurreikusi da, eta Batzordeak EGEFen 2014-2020 erregelamendurako finkatutako proposameneko gaikako helburu guztietara eta lehenetsitako inbertsioetara irits daitezke.



## 2014-2020rako aurreikusitako integratutako ikuspegi estrategikoen adibideak

### 1. Toki-garapenerako estrategiak

Lurralde jakin batean tokiko ekintzak gauzatzen dituzten taldeek abiarazitako lurraldeko ekintza-planak dira, eta MEK funts batetik baino gehiagotik jaso ahal izango dute laguntza.

### 2. Integratutako lurralde-inbertsioak

Hiri-garapenerako estrategia batean edo lurralde-itun batean inbertsioak lehentasunezko ardatz bat baino gehiagoren edo hainbat Programa Operatiboren arabera egin behar direnean aplikatzen da.

### 3. Baterako ekintza-planak


Baterako ekintza-planak Programa Operatibo baten barneko proiektu multzo bat biltzen duten eragiketak dira. Helburu zehatzak, emaitza-adierazleak eta estatu kidearen eta Batzordearen artean hitzartutako produktuak dauzkate. Planok errendimenduari begiratzen dioten kudeaketa- eta kontrol-sistema erraztuak eskaintzen dituzte.

Batzordeak EBn hiri-garapenerako plataforma bat abiaraztea du aurreikusia; Europa osoko 300 hirik osatuko dute, estatu kideek beren lankidetzakontratuetan sartzen dituzten hirien zerrenden bidez.

Plataforma horrek hiri-garapenari buruzko elkarrizketa piztu nahi du. Bertan, hiriek aurreko programazio-aldian baino protagonismo handiagoa hartzea da helburua, eta Europa 2020 Estrategiarako kohesio-politikaren esparruan ekarpen handiagoa egitea.

Hiri-garapen jasangarrirako estrategietan hiriek protagonismo handiagoa izatea, estatu kideek beren administrazio-eskuduntzen<sup>2</sup> baitan eskuordetzen dituzten funtzioen menpe egongo da.

<sup>2</sup> Estatu kide bakoitzak aukeratutako hiri-garapenerako estrategia horiek aplikatzen dituzten hiriak estatu kideak Batzordearekin sinatuko duen lankidetzakontratuari atxikitako zerrendan agertuko dira. Zerrenda hori aldatu egin ahal izango da, programazio-aldi berri hau aurrera joan ahala.




### 3. FINANTZA TRESNA BERRITZAILEAK 2014-2020 PROGRAMAZIO ALDI BERRIAN

Europako Batzordeak 2014-2020 aldian kohesio-politikak finantzatzeko finantza-tresna berritzaileen erabilera zabaltzea planteatzen du, diru-laguntzen bidezko finantzaketa-eredu tradizionalaren ordeztuz.

Horrela, nazioko, eskualdeko eta tokiko agintariei finantzaketa-iturri osagarri bat eskaini nahi die, EBko aurrekontua handitzeaz gain, interesgarriak diren proiektuetarako beste finantzaketa publiko eta pribatu batzuk erakartzeko.

Finantza-tresna berritzaile horiek merkataritza-potentziala duten proiektuetan aplikatzea proposatzen du Europako Batzordeak, hain zuzen ere ekarpenei itzulkinak eta etekinak ematen dizkietenetan. EBren funtsak sektore bankarioarekin eta pribatuarekin batera erabil daitezke, bereziki Europako Inbertsio Bankuaren (EIBren) bitartez, EBrentzat eta bertako herritarrentzat interes estrategikoa duten proiektu eta ekintzen finantzaketan merkatuak dituen gabeziak gainditzeko asmoz.

EBren 2014-2020 aldirako aurrekontuari dagokionez, tresna horiek finantzatzeko ez da zuzkidura zehatzik aurreikusi. Tresna finantzarioak Programa Operatiboaren aurrekontuen arabera finantzatuko dira. Kapitala edo zorra ematen duten tresna egokiekin konbinatuz.



### **3.1. 2014-2020 aldian kohesio-politika kudeatzeko esparru serraztua eta integratua**

EGIFek eta EGEFek nork bere Programa Operatiboen bidez gaitutako diru-laguntzek etxebizitzaren eta hiri-garapenaren inguruko programa eta proiektuak finantzatzeko bi mekanismo nagusiak izaten jarraituko dute, 2014-2020 programazio-aldi berrian.


Bestalde, aurreko kapituluan deskribatu ditugun hiri-garapenerako politikek eta estrategiek baliabide ekonomiko eta finantzarioak eskuratzeko esparru errazagoa eta malguagoa eskaintzea aurreikusten da.

#### **3.1.1. Finantza-tresnen aplikazioa gehiago erraztea**

Europako Batzordearen 2014-2020rako proposamenen arabera, kohesio-politiketan inplikaturako erakunde guztiek ahalegins egin behar dute, kudeaketa- eta finantzaketa-mekanismoak errazte aldera.

Hauxe lortu nahi da: Egitura-Funtsen burutzapen-prozesuetan parte hartzen duten kudeaketa-agintari eta eragile guztiek zama burokratiko txikiagoa izatea, 2014-2020rako finantza-tresna berrietatik datorren finantzaketa eraginkortasun handiagoz kudeatzeko.

Ildo horretatik, Europako Batzordeak proposamen batzuk azaldu zizkion 2011 urte-amaieran Batzordeari eta Europar Parlamentuari. Haien artean, hurrengo laburpen-taulan jaso direnak nabarmendu daitezke.



### **2014-2020 aldian tresna finantzarioen erabilera gehiago errazteko proposamenak**

- 1. 2014-2020 aldiko Esparru Estrategiko Bateratuko Egitura-Funtsekin zerikusia duten arauak bateratzea.** EBko prozesu bateratzaile hori estatu kide bakoitzeko nazio-araudian ere antzeko prozesua abiaraziz osatu beharko litzateke.
- 2. Segurtasun juridikoa areagotzea, arau argiagoak ezartzearen bidez.** Tresna berriak Europan estandarizatutako arauetan oinarrituz egitea proposatzen da, horrela ez baita estatu kide bakoitzean hainbat arau garatu beharrik egongo. Helburu horretan, etekinak ematen dituzten proiektuen kostuen eta irabazien analisiak estandarizatzearen garrantzia nabarmendu du, bereziki, Batzordeak.
- 3. Programa eta sistemen sorkuntzan malguntasun handiagoa izatea.** Batzordearen iritzian, Egitura-Funtsak lurralde-eremu egokietan aplikatu beharko lirateke, estatu kide bakoitzaren administrazio-esparruaren arabera. Hauxe planteatu da:
  - o Estatu kideek eta eskualdeek batera edo Programa Operatibo independenteetan planteatu ditzakete EGEF, EGIF eta Kohesio Funtsa.
  - o Esleipen finantzarioa eskualde-kategorien artean % 2 estutu daiteke.
  - o EBren hainbat tresna finantzario konbina daitezke, proiektu bakarraren finantzaketan.


#### **3.1.2. Integratutako Lurralde Inbertsioak (ITI): hiri-garapenean finantza-tresnak ezartzeko tresna egokia**

Deskribatutako ikuspegi sinplifikatzailearen baitan, Batzordeak ITI izeneko finantza-tresna taxutu du.

ITI erremintak Programa Operatiboak zeharka inplementatzea eta Programa Operatibo baten edo gehiagoren hainbat lehentasunezko ardatzen finantzaketara jotzea ahalbidetzen die estatu kideei, eta horrek lurralde batean integratutako estrategia bat ezartzea bermatzen du.

Hauxe da inbertsio-tresna horren oinarrizko helburua: nazio-agintariei lurralde-beharrei erantzuteko mekanismo malguago bat eskaintzea, kohesio-politika Europa 2020 Estrategiarekin lotzen duen gaikako ikuspegia ahaztu gabe.





Hori ezartzeko, beharrezkoa da ITI sektoreen arteko estrategia integratu baten baitan kokatzea. Estrategia horrek ezarriko den lekuaren garapen-beharrei erantzun beharko die bereziki, eta Programa Operatiboan hainbat ardatzetan sartutako ekintzen ezarpen koordinatuan sinergiak lortzen saiatu.

Hurrengo taulan, ITIen ezaugarri nagusiak, aplikazio-eremuak eta egungo formulazioan aintzat hartu diren kudeaketa-mekanismoak jasn dira.

## INTEGRATUTAKO LURRALDE INBERTSIOAK

### **Zein dira haren ezaugarri nagusiak?**

Hona hemen Egitura-Funtsekin alderatuz tresna honen balio erantsia erakusten duten ezaugarri garrantzitsuenak:

- » ITIak funtsen erabilera integratua bultzatzen du, eta, beraz, inbertsio publiko berarekin emaitza hobea lortzea ahalbidetzen du.
- » ITIen kudeaketa tokiko eragileen esku uzten denez, tokiko garapenerako programa eta estrategiak prestatu eta ezartzen gehiago inplikatzeko dira.
- » Finantzaketa dagokionez, eragile sustatzaileei segurtasun handiagoa ematen die, hainbat finantzaketa-iturri eskaintzen dituelako.

### **Zein izan beharko litzateke haren aplikazio-eremua?**


Lurralde-ezaugarri bereziak dituen edozein eremu geografiko izan daiteke ITI baten helburu, besteak beste: gabezia asko dituzten hiri-auzoak, hiriak, metropoliak eta eremu hiritar, landatar, eskualde azpiko eta eskualde artekoak.

ITiek eskualde beraren barruan antzeko ezaugarriak dituzten unitate geografikoetan txertatutako ekintzak ere eskaini ditzate (tamaina txiki edo ertaineko hiri-sare bat, esaterako).

### **Zer finantzaketa-iturri eta -tresna izan ditzake?**

EGEFen, EGIFen eta Kohesio Funtsekin bidez finantza daitezke, baina ez dago funts guztiak ITI bakoitzean konbinatu beharrik. EBK hainbat finantza-iturri erabiltzea sustatuko du, bereziki EGEF eta EGIF; horrela, gizarteratzeko inbertsioen finantzaketa eta azpiegitura fisikoetako inbertsioak konbinatuz, haren izaera integrala bermatuko du.

Gainera, ITIen finantzaketa diru-laguntza tradizionaletatik harago joatea espero dute, eta, horretarako, finantza-tresna berritzaileak erabiliko dira.



### **Kudeaketa-eredu espezifikorik behar al du?**

Inbertsioen erabaki-mekanismoak definitzeko orduan, ITIak ez du eredu zehatz edo espezifikorik behar, prozesu hori gorantz, beherantz edo modu konbinatuan<sup>3</sup> gauza baitaiteke.

Programa Operatiboaren kudeaketa-agintaria da ITI bateko ekintzak kudeatzearen eta ezartzearen arduraduna. Agintari horrek organismo bitartekari publikoak (eskualdekoak edo tokikoak) edo gobernuz kanpoko erakundeak izenda ditzake, kudeaketa eta ezarpen-ekintza guztiak edo batzuk gauzatzeko.

---

<sup>3</sup> Izatekotan, funtsen baterako xedapenen erregelamenduari buruz Batzordeak programazio-aldi berrirako egindako proposamenean, Erkidegoak Zuzendutako Garapen Lokalaren eredia planteatzen du hiri-estrategia integratuaren eredutzat, ITI bat ezartzea bidera baitezake.



### 3.2. 2014-2020 programazio-aldi berrirako finantza-tresnak

EBk datozen urteetan izango dituen aurrekontu-zailtasunak aurreikusiz, Europako Batzordeak hurrengo programazio-aldian hedatu eta indartzeko tresna berriak ezartzearen alde apustu egiteak duen garrantzia nabarmendu du.

Horrela, eskualdeko zein tokikoeragileei eta horien onuradunei laguntza osagarri bat eta, dagokionean, ordezko eraginkor eta iraunkor bat eskainiko zaie, diru-laguntzetan oinarritutako finantzaketa-sistema tradizionala osatzeko.

Tresna berritzaile horiek inbertitutako kapitalari itzulkinak ematea eskatzen dute eta programen finantzaketaren kudeaketan pizgarriei garrantzia ematen diete, funtsen burutzapenean etekin handiagoa lortzearren.

2012ko urrian, Europar Batasuneko aurrekontu orokor berrian aplikatzekoak diren arauak erregulatzen dituen araudi finantzarioa aldarrikatu da. Bertan, finantza-tresnekin erlazionatutako prozedurak xehatzen dira. Elementurik nabarmenenak hurrengo taulan laburbildu ditugu.

#### **Finantza-tresnak**

##### **EBko aurrekontu berriko araudi finantzarioaren arabera**

###### **Programazio-aldi berrian zer hartzen da tresna finantzariotzat?**

EBko helburu politiko zehatz bat edo gehiago lortzeko laguntza finantzarioa eskuratzeko neurriak dira. Tresna horiek hainbat motatakoak izan daitezke: kapitaleko edo kuasikapitaleko inbertsioak, maileguak edo bermeak, arriskua banatzeko beste tresna batzuk... Eta, egokia denean, diru-laguntzekin konbinatu ahal izango dira.


###### **Zer tresna-mota aurreikusten da 2014-2020 aldiko Egitura-Funtsen araudi finantzarioan?**

Maileguak, bermeak, partaidetza-baloreetako inbertsioak, kuasikapitalean egindako inbertsioak eta partekatutako arriskuko tresna finantzarioak sartzea aurreikusten da.

###### **Zer baldintzatan eta zer irizpiderekin erabili behar dira tresna horiek?**

Finantza-tresna horiek ezartzeko, irizpide zehatz hauek erabiliko dira:

- a) Gehigarritasuna: finantza-tresnak ez dira zuzendu behar estatu kideetakoak, finantzaketa pribatua eta EBko beste edozein esku-hartze finantzario ordezkatzera.
- b) Aurre egin beharko diete merkatuko hutsei edo bideragarritasun finantzarioa frogatuta duten eta behar adinakoak ez diren inbertsio-egoerei.



- c) Barne-merkatuko lehia ezingo dute aldatu eta koherenteak izan beharko dute estatuan laguntzen inguruan dauden arauekin.
- d) Palanka-efektua: Batasunak tresna finantzario bati egindako ekarpena EBk laguntza moduan emandako kopurua gainditzen duen inbertsio bat bultzatzera bideratuko da.

2014-2020 aldiko Esparru Estrategiko Bateratuko funtsetarako Batzordeak proposatutako xedapen komunek kapitulu berezi bat eskaini diote 2014-2020 programazio-aldiko finantza-tresna berriak arautzeari.


Kapitulu hori osatzen duten artikulua (32.etik 40.era artekoak) aztertu ondoren, hauxe ondorioztatu dugu: hiri-garapenari lotutako programa eta proiektuen finantzaketan, tresna finantzario horiek nagusi izango direla eta orain arte diru-laguntzen bidez kofinantzatutako programen finantzaketan aukerak nabarmen handitzen direla.

Zehazki, araudi horrek honako hau xedatzen du:

1. Programa baten barruan tresna finantzarioak ezartzen laguntzeko erabili ahal izango dira Esparru Estrategiko Bateratuko funtsak, baita funtsen funtsen bidez antolatuta badaude ere, lehentasun batean finkatutako helburuak lortzen laguntzeko.
2. Tresna finantzario berritzaileak ezartzeko, beharrezkoa da aurretiaz merkatuan gabeziak, inbertsio-egoera ezegokiak edo inbertsio-beharrak hautemango dituen ebaluaketa bat egitea.
3. Finantza-tresna horien azkeneko hartzaileek diru-laguntza bidezko laguntza tradizionalekin osatu ahal izango dute lortutako finantzaketa edo. Besteña. EBren aurrekontuaren bidez ordaindutako beste tresna batekin. Azken kasu horretan, finantzaketa-iturri bakoitza bere aldetik erregistratu beharko da.

Esparru Estrategia Bateratuaren funtsen laguntzarekin erabili ahal izango diren finantza-tresnen gainean Batzordeak egindako proposamen arau-emaileak oinarritzko bi tresna finkatzen ditu, Europar Batasuneko araudi finantzarioaren arabera:

1. **Europar Batasunaren eremuan sortutako finantza-tresnak.** Zuzenean kudeatzen ditu Batzordeak, bere zerbitzu eta agentzia exekutiboaren bidez, edo zeharka, eskuordetutako agintaritzaren bidez. Horiek abian jartzeko, Programa Operatiboan lehentasunezko ardatz independente bat sortzea aurreikusten da. Lehentasunezko ardatz horretarako kofinantzaketa-tasa % 100erainokoa izan daiteke.



2. **Nazioan edo eskualdean sortutako finantza-tresnak.** Eskualde- eta kohesio-politikaren esparruan garatzen dira eta horien kudeaketa eta aplikazioa estatu kideek partekatzen dute. Kasu horretan, kudeaketaren eta aplikazioaren erantzukizuna agintari kudeatzaileari dagokio, eta horrek finantza-ekarpenak eman ahal izango dizkie finantza-tresna hauei:

2.1.) **Normalizatutako finantza-tresnei.** Batzordeak egikaritze-ekintzen bidez finkatutako terminoak eta baldintza estandarrak bete behar dituzte, estatu kideei horien erabilera errazteko eta EBko tresnekiko bateragarritasuna bermatzeko.

2.2.) **Lehendik dauden finantza-tresnei edo sortu berriei.** Helburu jakin batez diseinatu dira, eta EBko eta nazioko araudi aplikagarriak errespetatzen dituzte. Azken kasu horretan, finantza-tresna jakin batzuen gainean eta horien bidez lor daitezkeen produktuen gainean berariazko arauak finkatzeko ekintza delegatuak erabakiko ditu Batzordeak.


**Finantza-tresna horien kudeaketa eta aplikazioa** desberdina izan daiteke esku-hartzearen helburuen eta eremuaren arabera. Edonola ere, oro har, tresna horiek EIBren bitartez kudeatzea aurreikusten da, baita nazioartekoak edo publikoak diren beste finantza-erakunde batzuen bidez ere, gutxienez estatu kide bat akzioduna denean.

Nolanahi ere, kudeaketarako honako hauetakoren bat erabil daitekeela ere aurreikusten da:

- inbertsio-tresna bat, nazioko araudiaren arabera sortutakoa eta sektore publikoko eta pribatuko baliabideak jasotzen dituena
- finantza-eragile pribatuetan eskuordetzea

**Finantza-tresna berri horiek** nazioko, eskualdeko eta tokiko agintariei dakartzkien **abantaila nagusien** artean, hauxe azpimarratu behar da: finantza-tresna horien aplikazioa lagungarri izan daiteke Europa 2020 Estrategian egin beharreko inbertsio estrategikoak betetzeko behar diren baliabide publiko eta pribatuak erakartzeko.

Halaber, finantza-tresna horien berezko izaerak eragile eta baliabide gehiago mugitzea eragingo du, inbertsioaren eragin biderkatzailea lortzeko. Finantzaketaren tipologiak eta motak EBko diru-laguntzetatik harago zabalduko direnez, eskualdeen eta hartzaileen beharretarako eta finantzatu beharreko sektore-esparrurako finantzaketa-sistema egokia diseina daiteke.




Zehazki, finantza-tresnak programazio-aldi berrian aplikatzearen alde apustu egiteari esker, pizgarri ekonomiko bat sortuko da, eta Egitura-Funtsetan kofinantzaketa-tasa handiagoa ekarriko du. Lehentasunezko ardatzak osotasunean finantza-tresnen bidez aplikatzen diren kasuetan Egitura-Funtsetatik datozen baterako finantzaketa-tasetan portzentajezko hamar puntuko hobaria aplikatzean datza.

Gainera, Europar Batasunak finantza-tresnen ondoriozko errenta edo etekin moduan jasotzen dituen kapital-baliabideak finantzatu den eremu berean berrinbertituko dira, gutxienez hurrengo hamar urteetan. Beraz, tresna horiek abian jartzeak hasierako ekarpen bakarretik bigarren eta are hirugarren inbertsio-zikloa ere bermatzen ditu.

Tresna horiek hartuko dituzten eduki eta formatu zehatzei dagokienez, azpimarratzekoa da Batzordeak, finantza-tresna berritzaileen hurrengo belaunaldiari begira, EB osorako erreferente bat aurreratu duela, **“EBko kapital- eta zor-plataformak”** deiturikoen bidez (COM 2011, 622 amaiera).

Plataforma horiek kapital- eta zor-tresnenezako (eta, horien artean, bermerako eta arriskuak banatzeko mekanismoentzako) baterako arau eta orientabideak dira, eta barne-politiken zerbitzura daude.

Plataformek bestelako parametro finantzario eta tekniko batzuk izango dituzte, adibidez: arriskuak banatzeko akordioetarako muga maximoak, kapital-partaidetzetarako muga minimoak edo beste funtsezko parametro batzuk. Horiek finantza-tresna berritzaileetan aplikatuko dira, errazagoak eta zentzuzkoagoak izan daitezten.




#### 4. FINANTZA-TRESNA BERRITZAILEEN APLIKAZIOAREN ESPERIENTZIAK 2007-2013 ALDIAN: JESSICA EKIMENA

Azken kapitulu hau 2007-2013 programazio-aldian abiarazitako JESSICA ekimenen hautaketa batean ardazten da.

Ekimen honen garrantzia dela-eta, 2014-2020 aldian bultzatu nahi diren tresna berritzaile hauek izendatzeko *JESSICA motako-tresnak* kontzeptua sortu da (*JESSICA type-instruments*).

Nabarmentzekoa da era berean, JESSICA ekimenaz gain, 2007-2013 aldian Txosten honen Azkeneko eranskinean zehazten diren beste finantza-tresna berritzaileen esperimentazioan aurreratu dela.

JESSICA ez bezala, Eranskinean jaso diren finantza-tresnek ez dute Egitura-Funtsetatik datorren ekarpenik jaso. Hala ere, badute interesik, jada EBeko mailan esperimentatutako finantza-tresna mota ezberdin eta zehatzetan sakontzea ahalbidetzen dutelako.



#### 4.1. JESSICA ekimena

JESSICA ekimenaren helburu nagusia Estatu Kideen kudeaketa-autoritateei hirien bilakaera jasagarria finantzatzeko eta kohesio-politikaren hiri-dimentsioa indartzeko estrategiak definitzen laguntzea da.

Ekimen honen ezaugarriak nabarmengarrienen artean hurrengoak aipatu daitezke:

- o Egitura-Funtsak jasotzeko *ex ante* ebaluazioa egiteko eskakizuna. Horrek, funtsezko jardura potentzialen identifikazioa eta hiri-garapenaren eremuko inbertsio hobereenen estrategiak identifikatzea eskatzen du.
- o Aurrikusitako finantza-tresnak zehazten dituen finantzaketa-estrategiaren diseinua, eta baita finantzatutako inbertsioek ekarriko dituzten eragin ekonomikoa eta itzulera-mailena ere.
- o Autoritateen eta beste hainbat inbertsio-eragile publiko zein pribaturen arteko lankidetzakudeaketa ikuspegia aplikatzea (maila desberdinetan; nazionala, eskualdekoa eta tokikoa).

Hurrengo orrialdeko laburpen-taulan JESSICAren ezaugarri nagusiak zehazten dira.


#### **JESSICA: Ezaugarri nagusiak**

##### **Zer esan nahi du JESSICAK?**

JESSICAK Joint European Support for Sustainable Investment in City Areas (Hiriko zonalde ezberdinetan inbertsio iraunkorrerako laguntza europarra) siglei erantzuten die. Ekimen honek Estatu Kideei beren Egitura-Funtsen esleipenen zati bat hiri-garapen jasagarri baten plan integratu bati eskaintzea ahalbidetzen die.

2007-2013 programazio-aldian zehar Europako Batzordeak bultzatutako ekimen bat da, eta Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB) eta Europako Batzordeko Garapenerako Bankuarekin (EBGB) lankidetzan garatzen da. 2014-2020 programazio-aldi berrian programa honekin jarraitzea aurrikusten da.





### **Zeintzuk dira bere jarduera-lerro nagusiak?**

JESSICAK esparru ezberdinetan laguntza teknikoko lerro ezberdinak abiarazteko laguntza eskaintzen du, besteak beste hiri-azpiegituren finantzaketarako, utzitako lur-industrialen birmoldaketarako (bere garbiketa eta desinfekzioa barne) eta eraginkortasun energetikoarekin zerikusia daukaten proiektuen finantzaketarako.

### **Nola kudeatzen da JESSICA ekimena?**


JESSICAko inbertsioak hiri-garapen jasangarriko plan integratu batean artikulatu behar dira. Hiri zehatz edo hiri-eremu batean egingo diren ekintzen osotasuna plan bakar batean integratuta egotea bilatzen da, euren arteko harremanak kontutan hartuz, sinergien sorkuntza eta ekintza bakoitzaren eraginaren batuketa hutsa baino handiagoa den azken inpaktu bat bilatuz.

2007-2013 aldian JESSICA ekimenaren eta berekin daramatzan finantza-tresnen garapena aukerakoa izan da. Horrela, EGEF eta EGIF Programa Operatiboen kudeaketa-autoritateek bertan sartutako funtsen zati bat haien borondatez JESSICAREN bidez bideratzea erabaki zezaketen, EBeko kofinantzaketaren hazkunderik eragin gabe.

Behin erabaki hau hartuta, diru-laguntza moduan emandako funts hauek, ekimen honen finantzaketa mekanismoa eratzen duen Holdin Funts baterako ekarpen moduan gauzatzen ziren. Hori, hurrengo orriko grafikoan ikus daiteke.

Horrela, EBeko beste finantzaketa-tresna tradizionalekin alderatuta JESSICA finantzaketa-sistema bereizten duen ezaugarri nabarmenena ondokoa da: Egitura-Funtsetatik datozen diru-laguntzak errenboltsozko beste finantza-tresnetan bilakatzea ahalbidetzen duela (maileguak edo proiektu baten kapitalenparte-hartzeko tresnak, esaterako).

Finantza-prozesu hau burutzeko, bi funts-mota hauek daude: Holding Funtsak (HF) eta Hiri-Garapen Funtsak (HGF):




- **Holding Funtsak:** HGF inbertsioetarako funtsak dira. JESSICA bidezko finantzaketa jasotzeko guztiz beharrezkoak ez badira ere, ondorengo arrazoiengatik ekimena modu eraginkorren burutzeko bereziki komenigarriak dira:
  - o Estatu Kideei JESSICAREN finantzaketa berehala aprobetxatzea ahalbidetzen die, finantzatzen dituzten HGF bidezko proiektu espezifikoak abiaraz daitezen zain dauden bitartean.
  - o Holding Funtsen kudeaketa sektore finantzarioko profesionalen esku uztea ahalbidetzen dutenez, JESSICAREN kudeaketa errazten dute. Eta horrela, proiektuen <sup>4</sup> finantza-tresna berrien abiaraztea bizkortzen dute.
  
- **Hiri-Garapen Funtsak:** hiri-garapen jasangarriko planerako hautatutako proiektuetan zuzenean inbertitzen duten funtsak dira. Maila nazionala, eskualdekoa edo tokikoa eta berezko izaera juridikoa izan ditzakete (edo bestela, jadanik existitzen den finantza-erakunde baten barruan finantzaketa-bloke banandu bat izan behar dute).

---

<sup>4</sup> Antzeko funtzioetan trebatutako giza-baliabide zein baliabide teknikoak dauzkaten finantza-erakundeetan eskuordetzean, lehia-sistema baten barruan kudeaketan arintasuna lortzen da; inbertsio-aukeraketan, proiektuen kaudimen finantzarioaren ebaluaketa eta beren gainbegiratze eta kontrola bezalako zereginetan.




#### 4.1. grafikoa JESSICA ekimenaren finantzaketa-eskema orokorra



Iturria. JESSICA Networking Platform. Europako Inbertsio Bankua

Laburpen modura, Egitura-Funtsen funtzionamenduaren eskema tradizionalarekin alderatuz, **ekimen-mota honek dakartzan abantaila nagusiak** nabarmendu daitezke:

- Proiektuen aurrekontuan eta finantza-kudeaketan malgutasun handiagoa dakar, diru-laguntza publiko tradizionalak inbertsio pribatuekin konbinatuz, eta parte-hartze, mailegu eta berme desberdinen bidez gauzatur.
- Funts pribatuen erakarpenera errazten du, proiektuen kudeaketa eraginkorragoa sustatuz eta finantzaturako proiektuetan baliabide publikoak biderkatuz.
- Lehenengo ekarpenaren ondoren hainbat finantza-zikloren abiarazpena ahalbidetzen du, HGFek gorde ditzakete aurrerago hiri-garapenera bideratutako proiektuetan inbertitzeko.




#### **4.2. Programazio-aldi berrirako esperientzia garrantzitsuak identifikatzea**

Azken atal honetan 2007-2013 programazio-aldian EBean abiarazi diren esperientzia batzuk nabarmentzen dira.

Gaur egun, 2012 urte arte Estatu Kideek eta EIBak hitzartutako JESSICA ekimenen aurrerapen-gradua oso desberdina da. Hurrengo orrialdeko laburpen-taulan ikus daitekeen bezala, hainbat ekimen abiarazteko lehen-fasean aurkitzen dira, beren gauzatzea 2015 urte arte luzatuz.

Une honetara arte, EBean abiarazitako JESSICA ekimen gehienak EIBko ardurapean egin dira. Dena den, orain arte hala egin bada ere, JESSICAK ez du erakunde baten nahitaezko partaidetzarik eskatzen.


Hain zuzen, aukeratutako lau kasuen artean, Estonian egindako JESSICA ekimenaren esperientzia aurkeztea erabaki da. Bertan, herrialdeko Ekonomia Ministerioak Holding Funttsaren kudeaketa estatuko KredEx finantza-erakundearen esku zuzenean utzi du, EIBko parte-hartzea kontuan izan gabe.



4.1. taula EIBrekin koordinatuta estatu kideek kudeatutako JESSICA ekimenen aurrekontuen esleipena

Holding Funtseko Kudeaketaren Autoritatea	Zenbatekoa (milioika euro)	Hitzarmenaren data	Abiarazpen-prozesua										
			0	1	2	3	4	5	6				
HF – Wielkopolska (PL)	67	II/09									JESSICAREN jaurtiketa-faseak	0	HF eratzeko akordiozko sinaduraren aurreko aldia
HF – Andaluzia (ES)	86	II/09										1	HF eratzeko akordioa
HF – Lithuania (LT)	227	II/09										2	HGF kudeatzen dituzten erakundeak hautatzeko irizpideen diseinua
HF – Portugal (PT)	130	III/09										3	Hautaketa-prozesuaren abiarazpena
HF – WestPomerania (PL)	33	III/09										4	Hautaketa-prozesuaren ondorioa
HF – London (UK)	113	IV/09										5	HGFen azken-hautaketa
HF – NorthWest England (UK)	114	IV/09										6	HFen eta HGFen finantzaketa-hitzarmenaren abiarazpena
HF – Sicily (IT)	148	IV/09											
2009 Guztira	918												
HF – Moravia Silesia (CZ)	20	I/10										Aurrerapen-gradua	
HF – Campania (IT)	100	I/10											Fasearen berehalako amaiera
HF – Scotland (UK)	56	II/10											Sinadura datozen hilabeteetan espero da
HF – Greece (GR)	258	III/10											
HF – Silesia (PL)	60	III/10											
HF – Pomerania (PL)	57	III/10											
HF – Bulgaria (BG)	33	III/10											
2010 Guztira	584												
HF – FIDAE (ES)	128	III/11											
HF – Sardegna (IT)	70	III/11											
HF – Masovia (PL)	40	III/11											
2011 Guztira	238												
<b>Guztira</b>	<b>1.740</b>												

Iturria. JESSICA Networking Platform. Europako Inbertsio Bankua



#### 4.2.1. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Inbertsio-Funtsa (FIDAE). Espainia

Energia Dibertsifikazio eta Aurrezpenerako Erakundea (IDEA) Energia Estatuko Idazkaritzaren bidez Industria, Energia eta Turismoko Ministeriora atxikitako erakunde bat da.

Erakunde honen helburuak ondoko gaietan arreta jartzen du: eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak eta karbonoan baxuak diren beste teknologia batzuen hobekuntzan, eta baita ere Europako programen eta hirugarren herrialdeekiko lankidetzaren hedapen, formakuntza eta aholkularitza-teknikoan.

##### a. Ekimenaren hedapena

2011n JESSICA ekimenaren esparruan FIDAE Holding Funtsa abiarazten da, Inbertsioen Europako Bankuko (EIB) akordioaren bitartez. Hitzarmen honek Funtsaren funtzionamendurako mekanismoak eta bere hasierako kapitala (120 milioi euroren gainetik kokatzen dena) finkatzen ditu.


Holding Funts honetarako datozen Egitura-Funtsen ekarpenak, FEDER 2007-2013 aldiko Eskualdeko ondoko hamar Programa Operatiboaren bidez egiten dira: Andaluzia, Kanariak, Gaztela-Leon, Gaztela-Mantxa, Ceuta, Valentziako Erkidegoa, Extremadura, Galizia, Melilla eta Murtziako Eskualdea.

Hasierako ekarpen honen bidez, palanka efektu bat lortzea bilatzen da, beste inbertsio pribatu eta publikoak mugiaraziz, 2015eko abenduaren amaierarako Autonomi Erkidego hauetan 600 milioi euroren guztizko inbertsioa ekarriko duena.

#### 4.2. taula Funtsaren aurrekontu-esleipena autonomi erkidego bakoitzeko programa operatiboaren arabera

<b>AUTONOMI ERKIDEGOAK</b>	<b>ZENBATEKOA GUZTIRA (€)</b>
Andaluzia	16.331.485,85
Extremadura	20.433.186,25
Galizia	28.161.831,27
Gaztela-Mantxa	119.197.103,38
<b>Kobergentzia Helburuaren Guztizkoa</b>	<b>84.123.606,75</b>
Murtzia	6.476.967,19
Ceuta	559.537,08
Melilla	514.149,73
<b>Phasing-out Guztizkoa</b>	<b>7.550.654,00</b>
Gaztela-Leon	9.519.390,02
Valentziako Erkidegoa	15.383.990,94
Kanariar Uharteak	6.616.837,30
<b>Phasing-in Guztizkoa</b>	<b>31.520.218,26</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>123.194.479,01</b>

*Iturria. JESSICA Networking Platform. Europako Inbertsio Bankua*



## b. Ekimenaren helburu orokorrak eta finantzatu daitezkeen proiektuak


FIDAEk kudeatutako JESSICA ekimenak eraginkortasun energetikoa hobetzen duten hiri-garapen proiektuak finantzatzea bilatzen du; hiri-inguruneetan energia berriztagarriak erabiltzen dituztenak eta Zerbitzu Energetikoko Enpresek (ZEE) edo beste enpresa pribatuek garatzen dituztenak.

JESSICAren filosofiarekin bat eginez, proiektuek funts honen bidez jasotzen duten finantzaketa beste finantza-iturri publiko edo pribatuekin zein EGEFek kofinantzatutako edo ez-kofinantzatutako diru-laguntzekin bateragarria da.

Hurrengo laburpen-taulan JESSICA programaren esparruan sortutako proiektu baten finantzagarriratasun-irizpideak zehazten dira.

### FIDAE-JESSICArako proiektu-hautagarritasun irizpideak

1. FIDAEk hartzen dituen 10 Erkidego batekoa izatea.
2. Sektore ekonomiko desberdinen artean egotea: artean, eraikin publiko eta pribatuen Erainkuntzan. Hasiera batean, etxebizitza-sustapena finantzaketa zuzenetik kanpo dago, hiri-kohesioa eta birsorkuntza sustatzen ez duten proiektuetan izan ezik.
3. Lehentasunezko gaietako baten parte izatea:
  - o Eraginkortasun Energetikoaren eta energiaren kudeakeren proiektuak.
  - o Existitzen diren erakinen berriztapena: jantzi termikoan, berokuntza instalazioetan, hozte-sisteman, argiztapenean, etab-eko jarduerekin.
  - o A edo B energia kalifikazioko eraikin berriak.
  - o Existitzen diren bero edo hotz-sareen berriztapena edo hedapena.
4. Inbertsiorako itzulera onargarria bermatzea.
5. Hiri-garapen jasagarriko planetan sartuta egotea. Izendapen hau daukan plan bat nahitaez ez da eskatzen, finantzatu behar diren proiektuak jada existitzen diren planen barruan kokatzearekin nahikoa da (adibidez, 2011-2012 aldiko Eraginkortasun Energetikoaren Aurrezpena eta Eraginkortasuna Aktibatzekeo Plana, edo 21 Agenda Lokalak).



### c. Abiarazitako finantzazio-mekanismoak


FIDAEa EGEFeko aurrekontuen funtsen ekarpenen bidez sortzen da. Hasiera batean daukan aurrekontutik abiatuz, FIDAEk aldi berean Hiri-Garapen Funtsetan (HGF) inbertitzen du, gorago erakusten diren irizpideak betetzen dituzten proiektuen finantzaketa erraztuz.

FIDAEaren kudeaketan, finantzaketa-funtsen esleipenaren inguruko erabaki-hartzean, gobernu autonomikoen ordezkariak parte-hartzen dute.

Bere aldetik, HGFak lehiaketa publikoaren bidez aukeratutako finantza-erakundeek bidez kudeatzen dira, JESSICA ekimenaren finantza-kudeaketa ereduaren ildotik.


HGF hauek azkenean kudeatuko dituzten erakundeek aukeratutako proiektuei laguntzeko finantza-tresna desberdinak erabili ahal izango dituzte. Hasiera batean, produktu hauek mailegu, kapital edo ia-kapital (mailegu parte-hartzaileak) forma har dezatela aurriztuz da.

#### 4.2. grafikoa FIDAEren finantzaketa-eskema



*Iturria. JESSICA Networking Platform. Europako Inbertsio Bankua*





#### **4.2.2. JESSICA ekimena Andaluzian**

JESSICA ekimenaren abiarazpena Andaluzian 2007-2013 programazio-aldian egiteko akordioa EIBk eta Andaluziako Juntak 2009an sinatu zuten, bi erakundeen arteko kooperaziorako baldintzak jasotzen dituen hitzarmenaren bidez.

##### **a.- Ekimenaren garrantzia**

Ekimenaren helburuak ia andaluziako 30 udal eta hirietan hiri-garapen proiektuak finantzatzea bilatzen du.

15.000 familia andaluzen bizi-baldintzen eta etxebizitzaren bizigarritasunaren gaineko hobekuntzan azken eragin bat iragartzen da. Programa honek hasiera batean izango duen aurrekontua 85 milioi eurotara igotzen da.

##### **b.- Ekimenaren helburu orokorrak eta finantzatu daitezkeen proiektuak**

Andaluzian JESSICA ekimenak egiten dituen jardueren finantzaketak hiri-ingurumena hobetzea bilatzen du, eraginkortasun energetikoaren hobekuntza eta baztertzeko sozialaren murriztapena haintzat hartuz.


Andaluziako JESSICA ekimen honen ezaugarri espezifiko bat Erkidegoko gobernuek 2008-2012 aldia hartzen duen Etxebizitza eta Lurzoruko V. Plan Andaluziarraren finantzaketan sartu duela da.

Ikuspen honen justifikazioa V. Plan autonomikorako helburu handietako batzuk JESSICAren finantzaketa-helburuarekin bat etor daitezkeen mantentzen da. Ondoko esparruetan horrela gertatzen da: egungo Andaluziako etxebizitza-parkearen hobekuntzan, utzitako eraikinen errehabilitazioan eta espazio publikoen birsorkuntzaren bitartez, bertakoen bizitza baldintzen hobekuntzan.

Zehazkiago, JESSICAtik datorren finantzaketa bi proiektu-mota hauetara zuzendu dadila begiesten da:

1. "Auzoetako birgaitze integraleko" planen testuinguruan egindako alokairurako etxebizitza sozialen eraikuntza.
2. "Hitzartutako birgaitze guneeetan" eraikinen birgaitzea.

Finantzatuak izateko, proiektuak hiri-garapeneko programa integratuen parte izan behar dute, inbertsioen koherentzia eta iraunkortasuna bermatuz. Hartarako, Andaluziako Juntak JESSICAK planteatzen duen plangintza estrategikoko ohiko tresnen egokitzapena burutu zuen, eta jarraian azaltzen direnak JESSICAK eskatzen dituen Hiri-Garapen Jasangarrirako Plan Integralak begietsi ditu:



1. Andaluziako Programa Operatiboaren 5 Lehenetsuneko Ardatzak kontuan hartzen dituen prozeduren bidez sortutako plan Integratuak: artean, URBANA ekimena (Ekonomia eta Ogasun Ministerioak babestua) eta hiri txiki eta ertainentzako baliokidea den ekimena (Administrazio Publikoko Ministerioak babestua).
2. Proiektuaren jarduera<sup>5</sup>-esparrua hartzen duten izaera estrategikoko hiri-planak.
3. Plan berriztatze/hiri-garapenean espezializatutako erakundeek aintzat hartu dituzten lekuentzako egindako planak eta leku zehatzetan inbertsio-programa zabalak kudeatzearen arduradunak.

### c.- Abiaztutako finantzaketa mekanismoak

JESSICA ekimena Andaluzian bi Hiri-Garapen Funtsetan (HGF) banatu da:

- 1) **HGF JESSICA ANDALUZIA:** Bilbao Vizcaya Argentaria Bankuko S.A. (BBVA) baliabideetatik bereizitako bloke gisa izanda, JESSICAko funtsak bideratzeaz gain, proiektu honi baliabide gehigarriak eskaintzen dizkio. HGF honek baldintza espezifikoak proiektuaren ezaugarrien arabera eskaintzen ditu, 20 urte baino gehiagoko amortizazio-epeak emanez.
- 2) **HGF AC JESSICA ANDALUZIA:** Andaluziako JESSICAko funtsak kudeatzeko berriaz sortutako Aurrezpen Korporazioaren taldeko kide den elkarte berri bat bezala sortua. Finantzarriak diren proiektuentzat eskainitako finantza-tresnak kapitalean, ia-kapitalean, maileguetan eta neurri txikiagoan, epe-luzerako maileguetan parte-hartzea dira.

Bi kasuetan, funts hauen kudeatzaileek finantzaketa hasieratik eta fase guztietan bideratzen dute. Honela, proiektuko sustatzaileari hiri-proiektuko finantzaketa-formula egokienaren bilaketan laguntzen diote: bai bere baliabideenean (BBVAren funtsa), bai bere proiekturako beste inbertsore batzuen bilaketan (AC funtsak).

---

<sup>5</sup> Plan estrategikoen barruan 21 Agendako dokumentuak sartu daitezke, agenda iraikor baterako hurbilketa bat ahalbidetzen duten heinean. Andaluziako Hirigintza Antolamenduko Legearen (7/2002) arabera landuta eta bideratuta badago, dokumentu hauen artean Hiri Garapeneko Plan Orokor bat eta bere Garapen Planak edo Bereziak direnak egongo litzateke.



Finantzaketa-aukeraketa eta baldintzak HGFk finkatutako irizpide finantzario, estrategiko eta arriskuko arabera finkatzen dira, Andaluziako JESSICA Ekimenerako ezarritako proiektuaren ezaugarri eta muga orokorren gainean:

- JESSICA funtsen esleipenaren % 60 50.000 biztanle dauzkaten edo biztanle gehiago dauzkaten hirietara eta %40 biztanle baino gutxiago daukatenera zuzendu behar da.
- Proiektu baterako JESSICA funtsen zenbatekoak ezin du 50.000 biztanle dauzkaten edo biztanle gehiago dauzkaten hirietan 15 milio euro baino handiagoa izan eta 5 milioi eurokoa baino handiagoa izan gainontzeko hirientzat.

Muga hauek JESSICatik zuzenean datozen funtsen zatiaz bakarrik dihardute, eta beraz, HGFek edo beste inbertsore batzuk emandako konfinantziaketa ez dute kontutan hartzen.

#### **4.2.3. JESSICA ekimena Campaniako eskualdean. Italia**

JESSICA ekimena Campaniako eskualdean 2007-2013 aldiko EGEF Programa Operatiboko kudeaketa-autoritateen bidez abiarazten da. Horretarako, ex ante ebaluaketa bat egin ondoren.


Ebaluazio honek eskualdeko autoritateei JESSICaren potentziala identifikatzea ahalbidetu zien, 2007-2013 aldiko eskualdeko EGEF Programa Operatiboaren bidez era egokian gauzatu ari ez ziren eta JESSICA ikuspegiaren integrazteko itzulerak sorrazki zezaketen baliabide eta inbertsioak identifikatuz.

##### **a.- Ekimenaren helmena**

Eskualdeko autoritateek egindako ex ante ebaluaketak JESSICA ekimenaren potentzialaren helmena eta eragina 2015 urtean kokatu zituen.

Hartarako, PIU Europa ekimena era zehatzean aztertu zen. Eskualdeko hirien hiri-garapenera zuzendutako ekimen hau EGEF 2007-2013 Programa Operatibo barruan kokatzen zen eta 19 dimentsio ertaineko hirietan aplikatzeko 166 programatutako proiektu zeuzkan.

166 proiektuetako bakoitzak JESSICA filosofiaren barruan zeukan aplikagarritasuna aztertu zen, hots, ekimenaren Holding Funtsak errenboltsozko ekarpenak egitera bideratuko zituen diru-sarrerara eta etekin nahikoak sortzeko zeuzkaten potentzialaren arabera. Aukeraturiko 15 proiektuen arduradunei JESSICAK planteatzen duen ereduaren arabera, modu koherentean, proiektu hauek berriz diseinatzeko aukera eman zitzaion.



## **b.- Helburu eta proiektu finantzagarriak**

Diagnostiko eta hausnarketa prozesu honen ondoren, Campania Eskualdeko kudeaketa-autoritatearen arduradunek eskualdean JESSICA ekimena abiarazteko azken erabakia hartu zuten, hartarako hurrengo helburu espezifikoak finkatuz:

- a. JESSICAK hiri-birsorkuntza proiektu hauetarako eskaintzen zituen finantza-estrategiak aprobetxatzea. Zehazki, proiektuen beharretarako JESSICAREN egokitzapena balioesten zen; sarrerak eta etekinak sortzen dituzten finantza-tresnez baliatzeko aukera zabaltzen zelako, kudeaketako autoritateei eskualdeko hiri-garapenean etorkizuneko proiektuetarako berrinbertsio posible bat ahalbidetuz.
- b. Kudeaketa-autoritateen gaitasunak garatzea hiri-garapen planak ikuspegi integral eta parte-hartzaile batetik bultzatzeko. JESSICA ekimenetik aurrera, eskualdeko eta tokiko kudeaketa-autoritateek erakunde publiko-pribatuak sortu dituzte, zeinetan aktore guztien artean parte-hartzaileak eta irekiak diren kudeaketa-metodologiak abiarazten diren.
- c. JESSICA ekimenaren barruan aukeratutako proiektuentzat izaera pribatua daukaten ekarpen gehigarriak erakartzea, EGEFetik datozen funtsen inguruan eragin biderkatzailea sortuz.


Proiektuen eduki tematikoari dagokionez, hurrengo tipologiaetan bereizi dira:

- Hiriko eremuen birsorkuntza, ekipamendu soziohezitzaileak abiarazteko.
- Hiri-azpiegituren eraikuntza.
- Bide-azpiegituren lurperatzea hiriko eremuetan.
- Jadanik existitzen diren eraikinen berriztatzea eta birgaitzea.
- Etxebizitza sozialeko sustapen-programen garapena.

## **c.- Abiarazitako finantzaketa-mekanismoak**

2010eko martxoan Campaniako JESSICA Holding Fund-a formalki sortu zen, Eskualdeko kudeaketa-autoritateen eta EIBko arduradunen arteko akordio baten bidez, hasierako 100 milioi euroko ekarpenarekin.


Hasierako kapitala eskualdeko kudeaketa-autoritateak eman zuen, 2007-2013 aldiko Eskualdeko EGEF Programa Operatiboak emandako funtsetatik (diru-laguntzak).




Hasierako ekarpen hau eremuko beste hiri-garapen programa batzuetatik datozen funts publikoen esleipenarekin osatzea aurrakusten da. Zehazki, FAS funtsetik (Fondo per le Aree Sottoutilizzate) datorren ekarpen finantzario gehigarriarekin, Eskualdeko 2007-2013 aldiko EGEF Programa Operatiboaren barruan hiri-garapen jasagarriko proiektuak sustatzera bideratzen dena.

Zehazki funts honek proiektuak finantzatzeko dituen tresnei dagokienez, mailegu parte-hartzaileen bidez egingo direla aipatu beharra dago, interes edo dibidendu batekin (kapital-ekarpenen kasuan), itzultze-kuota eszenatoki ezberdinetan. Hasiera batean, egindako ex ante ebaluaketan aztertutako hipotesietan, 25 urteko epean kokatzen dira.

Proiektua oraindik hasiberria zenez, 2012an eskualdean JESSICA ekimena HGFak kudeatzea eskatzen zuten finantza-erakundeei esleipena egiteko ireki zen prozesuaren hastapen fasean zegoen. Dena den, ekimenak eragin biderkatzailea sor dezakeela aurrakusten da, Eskualdeko inbertsioa 287 milioi eurotara heldu arte.



#### 4.3. grafikoa JESSICA ekimenaren finantzaketa-eskema Campaniako eskualdean




Iturria. JESSICA Networking Platform. Europako Inbertsio Bankua

#### 4.2.4. JESSICA ekimena Estonian

Aztertutako beste esperientzia guztien aldean, Estoniako JESSICA diseinatu eta martxan jartze prozesuan, herrialdeko Ekonomia Ministerioak Holding Funtsa naziko finantza-erakunde baten esku (Estonian Credit and Export Guarantee Found-KredEx) zuzenean uztea erabaki zuen.

KredEx Estoniako Ekonomia Ministerioaren ekimenez sortu zen 2001ean. Bere helburua Estoniako finantzaketa-sistema finantzatzea (merkataritzako finantza-erakundeak) eta merkatuaren bidez kreditu finantzario bat lortzeko zailtasunak dauzkaten enpresak eta norbanakoak laguntzea da.



Herrialdeko gobernuak KredEx erakundea ekimena aurrera eramateko Holdin Funtsaren kudeaketa zuzenean burutzeko bereziki erakunde egokitzat hartu zuen.

Erabaki hau azaltzen duten faktoreetako bat, KredEx-ek etxebizitza-programen finantzaketa-zuzenerako mailegu-ematearekin eta etxebizitza-sustapenaren finantzaketarako bermeen-ematearekin erlazionatutako zerbitzu finantzarioetan daukan esperientzian datza.

#### **a. Ekimenaren helmena**

JESSICA ekimenaren abiaraztea Estoniako gobernuko diagnostiko batean oinarritu zen. Honek, Estoniako etxebizitza-parkean eraginkortasun energetikoa sustatzeko beharra erakutsi zuen, eta zehazki, apartamentu-eraikinetan kokaturiko etxebizitzetan.

Etxebizitza hauek Estoniako etxebizitza parkearen % 95 osatzen dute, askok 50 urte baino gehiago dauzkatelarik (% 30 1960 baino lehenago eraiki zen). Beraz, estoniako etxebizitza-parkeak egungo eraginkortasun energetikoaren ikuspegitik huts adierazgarriak zituen, herrialdean JESSICA abiarazteko beharra agerian utziz.

#### **b. Finantzaturiko proiektu eta ekintza motak**


Diagnostiko honen ondoren JESSICAK eskaintzen zituen finantza-baliabideak etxebizitzaren jabeek aurrera eraman zitzaketan lan finantzaketa zuzenerako erabiltzea erabaki zen. Horiek ondorengo ekintza motetan laburbiltzen dira:

- Teilatuen, aurrekaldeen eta pareten islomendu termikoaren mailaren hobekuntza.
- Etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzen duten leiho eta ate berrien instalazioa.
- Berokuntza-sistema berrien instalazioa.
- Aireztapen-sistemen berriztatzea eta gailu berrien instalazioa.

#### **c. Abiarazitako finantzaketa-mekanismoak**

Ekimen hau abiarazi arte, Estoniako gobernuak iraganean, etxebizitzari zuzeneko diru-laguntzak emanaz saiatu zen eraginkortasun energetikoa hobetzeko programak abiarazten.

Hala ere, gobernuak finkatutako helburuak lortzeko tresna hau desagokia izan zen, besteak beste, Estoniako etxebizitza-parke osoa birgaitzeko eta hobetzeko eskuragarri zeuden funts-erabilgarriak nahikoak ez zirelako.



Horregatik, Ekonomiako Ministerioak JESSICA abiaraztea erabaki zuen, Egitura-Funtsetatik zetorren finantzaketa diru-laguntza bezala erabiltzea ahalbidetzen duen ekimena delako, beste errenboltozko finantza-tresna (maileguak eta bermeak) bilakatzea ahalbidetuz.


Zehazki, gobernu estoniarrak JESSICA aukeratzeko erabakigarria izan zen ezaugarria EGEFetik datozen funtsak, errenboltozko funts izatera pasatzeak dakarren eragin biderkatzailea da, urtero egiten den itzulera eta amortizazioarekin, zonaldean antzeko bigarren eta hirugarren finantzaketa-zikloak ahalbidetuz.

Holding Funtzaren konfigurazioaren eta bere aurrekontuaren esleipenaren ikuspuntutik, nabarmentzekoa da Holding Funtza 57 milioi euroko hasierako kapitalarekin osatu zela, hurrengo ekarpen nagusiekin:

- 29 milioi euro epe-luzerako mailegutuan, Europako Batzordeko Garapenerako Bankutik (EBGB) datozenak.
- 17 milioi euro EGEFeko funtsetatik, 2007-2013 aldiko estatuko Programa Operatiborako emandako diru-laguntzetatik Estoniako gobernuak ekimen honetara bideratuak
- 11 milioi euro KredEx-en berezko funtsetatik.


Kredex-ek kudeatutako Holding Funtz honek era berean, bi merkataritza-banku gaitu zituen HGBren kudeaketarako. Bi banku hauen aukeraketa (Swedbank eta SEB) irekitako lehia-prozesu batean egin zen, HGBak kudeatzeko jasotako proposamenek bete behar zituzten kaudimen-baldintza minimoetatik abiatuz

#### 4.4. grafikoa JESSICA ekimenaren finantzaketa-eskema Estonian



Iturria. JESSICA Networking Platform. Europako Inbertsio Bankua






ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

Finantza-erakunde hauek, beren etxebizitzetan eraginkortasun energetikoa hobetzea planteatzen duten etxebizitzetako jabeekin zuzenean finantzaketa-tresnak kudeatzeko arduradunak dira.

Hartarako, erakunde hauek etxebizitza jabeei finantza-merkatu tradizionalan lortu ezingo lituzketen interes-baxuko maileguak eskaintzen dizkiete.



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

**ERANSKINA**

**BESTE FINANTZA-TRESNA BERRITZAILE BATZUK  
2007-2013 FINANTZA ESPARRUAN**



## **1. EBeko ARRISKU KAPITAL/INBERTSIO KAPITAL TRESNAK**

### **1.1. ETE berritzaile eta hazkunde azkarrekoentzako mekanismoa**


Finantza-tresna berritzaileak Enpresa-Ekimenerako eta Berrikuntzarako Programaren (EEBP) parte izan dira. Programa hau, Berrikuntzarako eta Lehiarako Esparru-Programaren baitako (BLP) hiru programa espezifikokoetako bat da. Tresna hauen helburua sortu berriak diren edo hedapen-fasean dauden ETEei finantzaketarako erraztasun handiagoa eskaintzea da beren berrikuntza-ekintzak (harien artean ekoberrikuntza) garatzeko behar duten inbertsioa lortzeko.

ETE berritzaile eta hazkunde azkarrekoentzako mekanismoak 2007-2013 aldian 600 milioi euroko aurrekontua izan du (zati bat ekoberrikuntzarako espezifikoki esleitua izan da).

Bere helburua arrisku kapitalaren/inbertsio kapitalaren eskaintza areagotzea izan da, hedapen-fasearen hasieran dauden ETE berritzaileak laguntzeko. Mekanismo hau Europako Inbertsioen Funtsak (EIF) Europako Batzordearen izenean (EB ordezkatzeko duena) kudeatzen du. EIFak, ETE horiek laguntzeko, arrisku kapitaleko funtsekin inbertsio hitzarmenak egiten ditu.

### **1.2. Marguerite Funtsa**

Energiarako, Klima-Aldaketarako eta Azpiegituretarako 2020ko Europako Funtsa (Marguerite Funtsa izenekoa), garraio, energia eta iturri berriztagarrien sektoreetan azpiegituretarako inbertsioak egiteko Europako kapitalez osaturiko funtsa da. Funts honek 710 milioi euroko diru-zuzkidura du eta 1.500 milioi euroko zenbatekora heltzea aurriztatu da.



## **2. EBeko ZOR TRESNAK (BERMEAK/ARRISKUEN BANAKETA)**

### **2.1. Arrisku Partekatuko Finantza-Tresna (APFT)**

APFTaren helburua kapital merkatuetara heltzeko zailtasunak dituzten sektore publiko eta pribatuko sustatzaileek ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B) arloan arrisku-proiektuetara zuzentzen dituzten finantzaketa-operazioak laguntzea da.


Tresna hau Europako Batzordeak eta EIBak batera garatu zuten, Bankuak Ikerketa eta Garapen Teknologikorako Zazpigarren Esparru-Programaren lehentasunezko esparru tematikoetan burututako I+G+B inbertsioak laguntzeko emandako mailegu zuzenei edo maileguen bermeei lotutako arriskuak partekatzeko.

### **2.2. ETEen berme mekanismoak**

ETEen Berme Mekanismoak nazio mailako berme-erregimenen kontrako garantiak eta finantza-bitartekariei berme zuzenak eskaintzen dizkie, zorraren bitartez ETEen finantzaketa lortzeko aukerak handitu eta indartzeko asmoz.

Europako Inbertsioen Funtsak (EIF) kudeatzen du mekanismo hau Batzordearen izenean (EB ordezkatzeko duena) eta 500 milioi euroko diru-zuzkidura du. EBeko aurrekontuaren esposizio maila orokorra zorro bakoitzaren galerentzako kontratu bidez adostutako limite maximo baten arabera mugatzen da.

EBetik jasotzen duten bermearen truke, finantza-bitartekariak ETEei hauek behar duten finantzaketa merkatuko baldintzak baino hobeto eskaintzen diete.



### **3. KAPITALA ETA ZORRA KONBINATZEN DITUZTEN TRESNAK**

#### **3.1. Progress Mikrofinantzaketako Tresna Europarra**

2007-2013 programazio-aldian kapitalaren eta zorraren bidezko finantzaketa konbinatzen dituzten finantza-tresna berritzaileak abiarazi dira. Haien artean, 2010ean sortutako Progress Mikrofinantzaketako Tresna Europarra aurkitzen da eta horrela osatua dago:

- Mikrokreditu-hornitzaileei zuzendutako berme-tresna bat, 25.000 eurotarainoko maileguak ematen dituen, nagusiki gizarte-bazterketa arriskuan dauden talde kaltetuenei negozio txiki bat ezer dezaten.
- Egituratutako inbertsio-tresna bat, Progress Mikrofinantzaketako Funts Europarra deiturikoa, ondokoak eskainiz: lehentasunezko maileguak, mendeko maileguak (hots, hartzekodun nagusien mendekoak), arrisku-banaketa daukaten maileguak (lehentasunezko maileguak mikrokredituen zorroaren arriskuen banaketarekin konbinatuak) eta mikrokreditu-hornitzaileen kapitalean parte-hartzeak.

Berme-tresnak 25 milioi euroko aurrekontu bat dauka. Berme-tasa maximoa mikrokredituen zorroen edo berme onuradunen bolumen osoaren %75ekoa bada ere, bermatutako zorro bakoitzeko, harentzat aurriztatu diren metatutako galeretan oinarritutako limite maximo bat finkatzen da.

EB (Batzordeak ordezkatzeko duena) eta EIB Progress Mikrofinantzaketako Funts Europarreko inbertsioak dira, eta EIFak erakunde kudeatzaile bezala jokatzeko du bertan.

#### **3.2. Eraginkortasun Energetikoko Funts Europarra (EEFE)**

Funts hau egituratutako finantzaketa-tresna bat da, lekuko autoritateek garatutako eraginkortasun energetikoen eta energia berriztagarrien inguruko proiektu txikietan inbertitzeko helburua duela (zuzenean finantza-erakunde bidez).

Funtsak zerbitzu energetikoko enpresen garapena sostengatzen du eta 125 milioi euroko diru-zuzkidura dauka. Funtsak lortu nahi duen azkeneko diru-zuzkidura 500 eta 600 milioi euroren artean kokatzen da.